

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Barkos Lehendakariak Italiako Stefano Sannino enbaxadorea hartu du

Bileran, Nafarroaren eta Italiaren arteko topaketarako espazio berriak indartzeko jarrera agertu dute

Astelehena, 2019.eko urtarrilak 21

Nafarroako

Lehendakariak, Uxue Barkosek, Nafarroako Jauregian duen bulegoan harrera egin dio gaur arratsaldean Italiak Espainian duen enbaxadore Stefano Sanninori. Topaketan parte hartu du, halaber, Luciana Schiavarellik, Italiako Ohorezko Kontsul berria denak Iruñean.

Bi ordezkariak gaurkotasuneko gaiak zein Nafarroaren eta Italiaren arteko harremanak izan dituzte hizpide. Bereziki, eskualdeen arteko lankidetzako Europako egoera aztertu ahal izan dute, mugaz haraindiko lankidetzaz haratago. Horrez gain, biek topaketarako espazio berriak indartzeko jarrera agertu dute.

Italia Nafarroako enpresentzako merkatu garrantzitsuenetarikoa da kopuru aldetik. 2017. urtean, Nafarroak Italiara produktuak esportatu zituen 672,55 milioi euroren truke; hori dela-eta, Nafarroako esportazioen hirugarren helmuga izatera iritsi da soilik Alemaniaren eta Frantziaren atzetik.

Azken hiru urtetan, hogeitabat enpresak Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso dute Italian nazioartekotzeko proiektuetarako, laguntzen deialdien barruan.

Turismoari dagokionez, ditugun azken datuen arabera, Nafarroak bisitari gehien jasotzen dituen bosgarren herrialdea da Italia; iaz, urtarrila eta azaroa artean, 5.903 bisitari etorri ziren.

Stefano Sannino Italiak Espainian eta Andorran duen enbaxadorea da 2016ko martxoaren 21az geroztik. Aurretik, Italiaren ordezkari iraunkorra izan da Europar Batasunean, Bruselan.



Barkos Lehendakaria bere bulegoan, Italiak Espainian duen enbaxadore Stefano Sanninorekin.